

Manuel Zampirain

ALTZA LENAGO ZER ZAN



Altza lenago zer zan
Zeñek eman antza
Galdu dituzu lengo
Soro ta baratza
Galdu zan or goian zan
Frontoi edo plaza
Bañan ortxen daukagu
Lenago zan altza

Altzan gaiñ libro edo ixtori bat atera nai zutela eta nai banuen zerbait jartzeko esan ziran ortan zebillen batek; eta orko bromako eta serioz egintako apustu eta pasadizo batzuak jarriko ditut.

Apustu raro bat

Lenbiziko Martillunen egin zuten apustu raro bat jarriko det. Or bazan, oraiñ tapatua dago baño, iru erri markatzen zitun mugarri xabal bat, eta apustua egiñ omen zuten. Batek ordu erdi bat barru iru erriren gañian kaka egin baietz eta ezetz, eta mugarri ortara etorri egin bear zuena bere gañian egin ta apustua irabazi omen zuen.

Londres

Bestia gizon moxtaka xendo txiki bat sekula beretik ateratze etzan orieta-kua zan, Londreskua. Exteban zuen izena baño Londres esate zitzaion. Berak etzuen iririk baño besterenakin itzai ibiltze zan. Arengatik esate zuten ain goxo tratatzen zitula, etzuela akullu bearrik ari onian zutena ematen ziotela. Eta garai artan Primo de Ribera zarrak, Miguel uste det zuela izena, sei urteko ditadura eduki zuen eta iri apustuak eta akullu eztenak galerazi, eta Londres, ori nolabait akullua eztenakin zuela, arrapatu guardiak eta amar pezeta munta, eta guardiak:

- "¿De donde es uste?"
- "De Londres."
- "Donde está Londres?"
- "Alao de Paris." -Biak ondoan baitia-.

Bañan munta pagatuta, libre.

Beste apustu bat

Apustu raruak izate ziran. Bi gizon, biak ere edadian ondo sartuak, sagar arbola ipurditik ateratzen jokatu zuten. Bat Matxikarko Joxe Juakin, au baserrin bizi zan gizon moxtaka xendo bat zan; bestia Aizpurutxon bizi zan Antselmo, au ez nuen nik baserrin ezagutu, gizon luze ta serail samarra zan. Baserritarren artian ze animua jartzen zuten olakuak. Biak gizon egiñak eta sonatu samarrak, apustua ere aiñ raru ia inon aditu etzana, ta uste det Antselmok irabazi zuela. Askotan gauza aundiak baño olakuak geiago pixten dute erria

Estropadak

Estropadatan urtian bein izaten ziran, ez orain bezela (inflazioan gaudela uste det) eta izugarrizko animua izate zan, batez ere San Pedrok sei bandera segiran ekarri zitun artan. Orio eta San Pedron arteko temak pixten zuen jendia. Beti Orio etzan etortzen irabaztera, baizik segunduen bentajakin eta batzuetan lortzen zuen nai ori bañan bigarrenian, itxaso txarra zala ta etzala, bentaja autsi eta San Pedrok eramaten zion. Etzan orain bezelako diru auke-
rarik baño trabesian, al zuenak al zuen mallan geienak kutsatzen ziran eta Matxikarko Joxe Juakin orrek, saltsa guzietan sartze zan, dirurik ez ta txeko-
rra jokatu omen zuen eta irabazi, esaten zuenez. Eta San Juan ta San Pedron

artian berriz kostatik kostara emakumiak maindiriak jokatzen omen zituzten. Urrengo gabian bat birekin, bestia utsik, irabazlea bero ta pozik, galtzailleak pasa bearko zuen otzik, dardaraz serio egin gabe itzik.

Estropa kontuan apustuak egite zituzten, bat zer esana eman zuena, zenbateraño erreparatzen ziran batzuak, Plazentziko Domingo, "Yomingo" esate zioten txikia zalako; bestia ezdakit zein zan, apustua egin zuten urtietako estropada demborak zeñek zuzenago jakin, segundotara iñork ezin autsi, azkenian dezimatara, eta Domingok irabazi. Oraingo Realak sei ta ust eta aundikeri auekin baño animatuago bizitze zan jendia. Au emengo erri zarra zan oraiñ aurria artu digute. Gu folklore itxuratako artzen gaituzte.

Altza Donostiari saldu zitzaion artan

Franko gallendu zan ondore artan, Altza Donostiari saldu zitzaion, ez dakit saldu edo erosi, beintzat Donostia jabetu zan eta aldaketa artan emen festa bezela egin zuten. Baziran kontra agertu ziranak ere eta aietako bat geixko sartu zala edo inspeziuan sartu zuten, eta an rekisatutako eskopetak izaki, eta arek gabian inspezio jirako Txapineko osinetara bota. Atera zutenian jua, artu ta laguneri eman zizkaten. Eta nik ere ollagorrek bota nitun aietakuakin. Ez det esango zein zan, lengo Altzako jendiak behintzat badakite.

Pelotariak

Altzak beti frontoi bat zuen eta pelotariak izan ditu. Ezagutu ditut politak, nik Martuteneko Tolaxarko Joxe Arrieta ezagutu ez nuena pelotan, bes-tela asko ezagutu nuen baño, bera gizon aundia zan, libria ikusitakuak esaten zuten, besagain ikaragarria, Gallastegin antzera izan bear zuen. Gero, remontian ikasi ta Zaragozan pelotari ibillia zan eta, esate zuenez, irabaziak kastatuz zabarkerin ibillia. Eskerrak garaiz konturatu zan. Geroztik, hamaika porru landare sortu ta saldua zan. Gure garai inguruko batzuak, esateko: Otaegi, Goikoetxea ta Orbegozo. Au izandu zan geiena nabarmendu zana. Nik lenguetan ezagutu detan onena, afizionatuetan ibili zan iritxirik Españiko txapeldun izatera, Loiolako Etxarri lagun zuela. Gero, bolara batian ezda destakaturik izan: Elizasu, Raia, Atorrasagasti, Otaegi... Baño bertakuen artian urrena geiexkuna agertu diranak Iñarra ta Zapirain. Au etzan Altzakua bañan or ibili da. Au iritxi zan Españiko txapelketa jokatzeratanto batez galduaz. Irigoien zan beste bat danetara nabarmentzen zana, fubolian batez ere. Eta azkenian oiek denak utzi, exerita jarri, letrakin dabill

borroka. Bibote aundi batzuak utzi ditu disimulatzeko bañan lengua da. Aspaldian ez gera ikusi baño nik noiz nai ikusten det bolara ontan behintzat.

Frontoi berri bat egin zan ta afizio aundia dago. Eta agertu dira berriak; geiena nabarmendu direnak: Karrete ta Koka. Au da neretzako nere dembon izan dan onena eta badatoz berriak.

Idi apustuak

Idi apustueta ere izate ziran kaso selebriak: Putzuta, Bonea ta Txantre nabarmentzen ziran. Bajuxiagokuak ere izate zituzten beren temak irurentzako uztarria egin ta bikuan kontra, eta oietan erria dena pixten zuten, ta irabaztunetakon batek esan du: "Ua orbel biltzia!" Noski, eta esaera dan bezela, jokua ez da errenta. Urrengo apustuan galdu, eta jendiak zabaldu zuen lengo orbel pillaa aiziak eramane omen ziola. Olaxe ibiltze zan jendia, erdi desaira, erdi broman, ziria zeñek sartuko.

Bikarioarena

Bikario bat izandu gendun Altzan oso modakua. Altzan etziran izango iru lagun erderaz entenditzen zutenak eta sermoia erderaz meza nagusian egiten asi zan. Jendia aserre zan baño arek berean jarraitu zuen. Arek dena libre zuen, bestiak ezer ez. Euskara ta euskaldunen kontra ere somalak esate zitun, bañan oiek euskaraz esate zitun, erderaz esanta komprendituko etzan beldurrez, noski. Txerrien odolak odolkiak eiteko balio zula, euskaldunenak ez artarako ere esan zuen bikario sonatuak pulpitotik. Guk neska bati begiratzia ere pekatu zan arentzako bañan berak neska gazte bikain bat eduki zuen nes-kame bizi zan arte. Ez dakit nola moldatze zan begiratu gabe; betaurreko beltzakin ibiliko zan akaso. Ez det uste on aundirik egin zuenik Altzan.

Tolaria eta sagardua

Tolaria ta tolare lanak ze aldaketa egin duen jarriko det. Nik iru tolare ezagutu ditut, irurak sistema bera ardatzian ezik. Lenbiziko, azpian tronko aundi batzuak, erdian aundiarena, ardatza sartzeko dala. Aien gañian sala, al bada, ariz giñarrezko, tabloi onarekin egiña. Gero, lau aldetatik, kantalea esaten zaiona, tabloi aundi batzuak, len bañan, orain tabloiak alkar josita; orixe da tolaria. Gero, ardatza sartzen da esan dan tronko aundi ortan. Ardatza roskan izaten da erdia baño geio. Ua sujetatzian, sartzen zaizka urka-

txua ta estutzeko tresnak. Ardatza ta aiek sartzea oso lan delikadua izate zan, burnia ta pisu aundikuak eta rroskan. Baziran maña aundikuak eta maña artuak, eta aien esanetara, bañan kontu aundia ibiltze zuten. Nik iru tolare ezagutu ditut. Lenbizikoa tolare, etxian antzera, luzeka zan, ta luzian zan. Puska bat zuen repuesto bezela eratxia. Puska etzan baliatzen tolare bezela, orduan pisoiz jotzen zan, sagarra salan zabaldu eta iru bat pasara eman. Gero eskolarian buruarekin, al zan lekurik txikienean bildu, berriz sagarra zabaldu ta segi jo. Aldi aundi samarra zanian txikitze zan ederki jo tokia ta ortarako zuen puska ua eratxia. Pisoia zer zan ere ez da jakingo gaur akaso; metro erdi bat inguru luzeko tronko koskor bat, betik gora estutze zala, me aldetik erdian zulatu, metro erdia baño geixioko kirten bat sartu ondo ajustatze zala. Ta uraxe zan pisoia, tolare ua ere urte asko egiña zan nere ezaguerarako ta ondatuta kendu egin zan. Ardatzetik ondutzen dira geienak; ardatzeko tronkuak usteldu ta lan txarrak izaten dira andik aurrera. Ua kenduta, urrena egin zana. Ua etxian luzeka bezela, kontra, motzian egin zan, orain dagonaren toki berian. Arek kantaleak osokuak zitun. Lenbizikuan umea nitzan, ta ez nitzan sagar jotzen aritu, bañan bigarrenguan bai, sagarrza zabaltzen zan tolarian ta bost edo sei lagun beren pisoiak. Orduan etzan bota luzerik eta danak ankutsik. Tolare lanak denak ala egite ziran, jela bazan ere. Lenbiziko pasara eman lertuz, bigarrena geixio, iru edo lau pasara eman txikitu arte. Eskolarian buruarekin alde batera bildu, berriz zabaldu ta lan bera. Tolare txiki xamarra zan ta azkenerako jo tokia txikitze zan. Etzan lan ederra bera ere. Ni mutil koskorra nitzan ta eskuak babatuta naiko komeriak izate nitun. Txukatzeko lanetarako biak ardazt bera zuten ta lan berdina. Ardatzian, roskan sartua, burnizko pieza bat zuten, agaia sartzeko kuadroko mutur bat luzatzen zaiola. Or sartzen zaio, ondo ajustatuta, dozena bat metro luzeko agai bat, lizarrezkua, guk behintzat. Gu alde batera estutuz jua ta utsian bueltatu, ta atzera ta aurrera ibiltze ginan bañan agaia jartzeko aren azpian burnizko borobill bat zuen, buelta osokua, bere txabeta zuluakin. Ua buelta osuan ibiltzeko izango zan , tokia izanta. Bañan guk ez gendun ta irutatik batekin ortxe ibiltze genun. Eta guk txabeta esate genion ua, sartu ta, estutzen etzan ateratzen. Bañan estualdia eman ta ostera, atzera gatozenian, txabeta ua tan tan juaz etortzen zan. Eta estualdi fuertiak ematian golpeka gutxi mugitze genun ta fuerte jo bear izate zan. Soñua jo zuela ta nonbait gutxi sartua izaki, jo degu ta bost lagun baginan, ta danak ankaz gora bueltaka.

Ogeita amazapiko urtia izan zan nik ezagutu dedan sagar urterik onena. Gure aitak irurogita iru urte zitun gerra asi zanian eta urte artako sagar guziak berak bakarrik txukatu omen zitun aparejo arrekin. Lanerakuan buelta pare bat, bueltakuan beste bi, gabian askotan pikatu ta estutu. Ni gerran nitzan ta bi anai ziran etxian; batek kalera jua bear zuen, danentzat izango

zan naiko lan, aiek esaten zutena jartzen det. Gañetik etxeko sega-lan danak, anaiak etzuten segarik artu, oraindik gehiago auzokueri segan lagundu. Eta errenta pagatzia Tolosan izate zuen eta oñez jua-entorria egite zuen goizian jua ta eguardirako etxean prest lanerako. Urnietan barrena korrika zijuala ikusiak baziran. PISOIZKO SAGAR JOTZIAK BUKATU ZIRAN BI MAKINA PASA DITUGU BAÑA BERA ERE EZ DA EARRA. Pasara dezentiak artu ditugu. Tokatu izandu zaigu zazpi karga sagar jotzeko eta oraindik emen gauden iru anaien artian goizeko lanak egin, kaleketaria bialia, sagar jotzen asi, irurak txandatur, bakoitzak bi zaku aldiko, bi jotzen ta bestik sagarra bota ta patsa kendu. Ta olaxe dana bukatu baraurik eta gosaltzera; gure gosaria izate zan kazoka bana kafesne zopa, ondo egosia. Gero neri sartuko dirate baserriko esnia txarra dala! Orain txar guziak kenduta gañera, berak ez ba dute len zan baño txarragua botatzen behintzat.

Tolare oni ere iritxi zaion bere destinua, bost bat baserriko lanak egin zitun urte askuan eta ardazt ondolik beintzat ondatu zan. Buztina jarrita ta lan txarrak ibiltze genitun, sagarra etxian asko genun. Sagardia botilletan ondo saltze zan, tolare gabe gelditzeko beldurrez berria egitia pentsatu genun. Baziran Martutenen (Atorrasagasti), baño lakatzaz sonatuak ziran tolare egilliak. Aiengana jua nitzan, pasa genitun leku askotan utzitako tola-riak; Residentziko ondoko polluan sagar jotze makina artu genun. Gero ona, utzia zegona Usurbilko kalia billatu genun ta uraxe artu. Neroni juate nitzan iru mutil koskorakin, zarrenak ere hamasei bat urte, dana askatzera. Gero Martutenera ekarri, zepillatuta jarri, aundia zan, ta emengo neurria jarri, ta dana berritu. Lengo zarra kendu, tolare ardazt eta makina berri berria moldatu genun, lenguak kantaleak osokuak zitun bañan onek tabloiak alkar josiak ditu. Dana motorrez jarri genun bañan estuzekuak fallatu egin zun ta orain jotzeko bakarrik daukagu motorra, estutzeko katuakin baliatzen gera. Sagarra jo ta ondorengo lana berriz lenbizi patsa moldatzen da, gero zirriua esaten zaion bi egur luze beren kanala ateriakin, ardatzaren alde banetatik jartzen dira. Ateratzen danak an korritzeko, aien gañian patsolak dana tapatu artean, azkenian tronko aundi batzuk eta, gure kasuan, urkatxua ardatzian egoten da roskan. Eta ua eta tronkuan tartian katuak jarri, karril batzuk goitik eta betik dirala, estutu ta txukatzen degu. Guk sinfinezko motorrezkua baño azkarrago ta obetzat daukagu, gero txukatzeke iru edo lau bat aldiz, ondo legortzeke behintzat, pikatu egin bihar izaten da. Pikatzeko lana izaten da dana askatu kanpoko aldetik pala batekin, txukun txukun ebaki, bustiena gañera bota, berriro moldatu eta estutu. Nik guria jartzen det, bestietan ere olatsu ariko ziran noski, lengo tolare zarretan beintzat.

Sagardua ateratzeko tinia izaten zan, ta andik baldeka. Len barririk etxian genitun, ogeita amar bat metro birian karraitze gendun. Oitura ori lendik zetorren, hamasei kargako kupela ere olaxe betetze zan; makiña bat baldeka ekartze ziran, bañan tolare berria egin ezkeroztik, barririk bertan jarri genitun, tinia kendu ta manga baten bitartez, zuzenean barrikara, beti errexten juanda bañan oaindik emen ez daukagu paruan beldurrik.

Orain dator tolareko lanaren emaitza; sagarduak barrikan irakin egiten du (erderazko fermentar) izango da, noski. Gero lanean joaten da barrenean, sagardua etortzia esaten zaio; barrika txikia azkarrago etortzen da aundia baño.

Udara antzian berua bada, ere bai. Ori esperientziak erakusten du: kontu aundia bear da pasa baño len tapatzeko. Denak ez dute ibiliko, bañan nik sistema au ibili det eta ondo jua zait. Oso senzillua da: ez da lana baizik kontu izatia sagardua probatzen ari bearrian etorri dan edo ez ikusteko. Bada ezpadare, alde z aurretik poxpolo bat pixtu ta tapan jarri pixtua; itzaltze badu, oraizdik ezda. Pixkaka zortzian bein edo prueba ori egin, juaten da konturatzan badatorrela, ta poxpolo pixtua barreneraño sartuta itzaltze ez danian, etorria dago, ta tapa liteke. Bada ez bada probatu egiten da bañan neri ez dit fallatu. Au da neretzat sagarduak duen unerik delikatuena; tapatu gabe pasa ezkeru ez du bueltarik, lengo lan guzia pikotara dijua.

Altzako izaera lenago nola zen agertu naiez gutxi gora bera egin det egin detana. Norbait zerbait utsegin badiot ezda asmoa txarrez izan eta bakartu'.

* Liburua inpretan zegoela Manuelen heriotzaren berri txarra jakin dugu. Goian bego.